


## Olerki-Txirlorak



## RAFA -10.03.26 (Lagun bat zorionduz)

Sarritan entzun neban

Bilbaon ba zala

fabrika andi batean

kezulo itzela.

Kea gora ta gora,  
batzutan zabala,  
Begoña estaltzeraño,  
au bai tamala,  
baña biurtuz gero,  
urregorri-ola.

Urreak egiten dau  
bizitza barria,  
gizon askorentzako  
zorion bidea.

Zorionduz etxea,  
bai ta familia,  
muño txiki batetik  
egiñez mendia,  
alantxe dogu Bilbao  
xume eta andia.

Apala eta andia,  
munduan bakarra,  
betieran daukana  
sartuta susterra.  
Jainko alorodunak,  
izanez xamurra,  
eskua emon eutson  
eskeñiz altxorra:  
berberak erakutsiz  
euskera ederra.

Lautan ospatzen dozu,

Rafa,gaurko eguna:

Aurrena, amak Bilbaon,  
erditu zinduna.

Urrengoan eleizan  
ipinita izena,  
adinduz geroago  
Mixiolari lana,  
azkenean zeruan  
asiko dozuna.

Opa deutzudaz, Rafa,  
zorion ugari,  
berrogeitamar urte  
bete barriari.

Zelanbaiten zara ta  
txanponen nagusi,  
goiaingeru Rafael  
bekizu gidari,  
azken trukez dagizun  
zerua irabazi.

Klaudiok  
BilBO. 2.010-03-26

olerkia